

EKHIREN BARITA MAGIKOA



Argitaratzailea: Ashegui-Gipuzkoako Hemofilia Elkarte
Egile eta ilustratzailea: Izaro Babarro Vélez

Lege-gordailua: SS-631-2017



Zerbitzu Sozial Psikopedagogikoa

Dr. Beguiristain z/g
20014 Donostia-San Sebastian

Kolaborazioak

Eskerrak eman nahi dizkiegu Arantxa Aguirre anderea eta Alvaro Perona Jauna Donostiako Ospitale Unibertsitarioko hematologoei, Javier Carrera Asheguiko lehendakariari, eta Amaia Argarate Asvaheko lehendakariari. Beraien kolaborazioagatik Ainara Babarro Vélez haur Hezkuntza Irakaslea, Javier Conde Bauza aholkulari teknikoa, eta Idoia Careche pedagoga eta psikologoa ere bereziki aipatu nahi ditugu.

Eskerrak

Bereziki aipatu nahi ditugu Euskadiko eta Gipuzkoako Hemofilia Elkarteetako kideak, eta beraien laguntzarekin argitalpen hau posible egin duten erakundeak.




**KAIXO!
EKHI NAIZ
ETA
BOST URTE DITUT.**



**NIRE MUNDUA GORRIA DA.
GEREZIAK, MARRUBIZKO GOZOKIAK,
PARTXISEAN ARITZEA ETA
TXANOGORRITXUREN IPUINA
IRAKURTZEA GUSTUKO DUT.**



BAINA, ZALANTZARIK GABE,
LAGUNEKIN SUPER HEROIETARA
JOLASTEA DA
GEHIEN ATSEGIN DUDANA.
LAGUN BAKOITZAK ANIMALIA BATEN
GAITASUN BAT DAUKA.





MARTIN, "SUPER MATXIN" DA
ETA
IA-IA ZERURAINOKO SALTOAK EGIN DITZAKE

TXIMELETA BAT BEZAIN

POLITA DENEZ,

ARANERI "SUPER PINPIRIN"

DEITZEN DIOGU.

LIBRE IBILTZEA GUSTATZEN


ZAIO, HEGAN EGIN

ETA ASKE SENTITZEA.





NI, "SUPER TXI" NAIZ ETA
SENDATZEKO AHALMENA DAUKAT.
NIRE LAGUNEK MIN HARTZEAN
HASTEN NAIZ LANEAN.



**INURRIEK BEZALA,
EGAN EDO SALTO HANDIAK
EGIN EZIN BADITUT ERE,
PAUSO TXIKIAK EMANEZ,
GAUZA HANDIAK LORTU DITZAKET.**



MARTIN ETA ARANERI ZAINTEA
EZ DA NIRE ZEREGIN BAKARRA.
DAUKADAN BOTERERIK HANDIENA,
NIRE BARITA MAGIKOAK EMATEN DIT:
NI NEU SENDATZEA!



NIK, HEMO...HEMO...

HEMOFILIA DAUKAT.



HONEK ESAN NAHI DU,
NIRE ODOLA EZ DELA
NIRE LAGUNENA BEZALAKOA.
NIRE ODOLA DESBERDINA DA.

KOLPE EDO ZAURI BAT EGITEAN,
NIRE ODOLA ETENGABE ATERATZEN DA.
HORREGATIK, MENDIRA JOATEAN,
FUTBOLEAN ARITZEAN
EDO KORRIKA EGITEAN,
KONTUZ IBILI BEHAR NAIZ.



MIN HARTZEN DUDANEAN

BIZI ARAUA JARRAITU BEHAR DUT:

1) EKINTZA **BUKATU**.

2) ZAURIA GARBITU ETA **IZOTZA** IPINI.

3) MIN HARTUTAKO GUNEA **ZAPALDU**.

4) KALTETU DEN BESO EDO HANKA **IGO**.


B



I



Z



17



I

BAINA, ZAURIA HANDIA DENEAN,
AHALIK ETA AZKARREN,
NIRE BARITA MAGIKOA
ERABILI BEHAR DUT.
ZIZTATZEN NAIZENEAN,
NIRE ODOLA GELDITU ETA
SENDATZEN NAIZELAKO!



HALA ERE, HEMOFILIA EDUKITZEA,
EZ DA ARAZO BAT.

SEGURU SENTITZEKO EGIN BEHAR DUDAN BAKARRA
"SUPER TXI" ZAINZAILAIREN BARITA
MAGIKOA GAINEAN ERAMATEA DA.

SEKRETU BAT JAKIN NAHI? ★

JOLASA AMAITZEAN,

NIRE LAGUNEK,

BOTEREA GALTZEN DITUZTE.

NI, ORDEA, EGUN OSOAN NAIZ

"SUPER TXI" ZAINZAILA!



ORAIN, LAGUNDU IEZADAZU
GUZTIETAN EGOKIENA DEN
ERANTZUNA AUKERATZEN.




JOLASEAN NENBILELA, ERORI EGIN NAIZ

ETA MIN HARTU DUT.

ZER BEHAR DUT SENDATZEKO?

A) KOLORETAKO
PILULAK



B) BARITA MAGIKOA
(XIRINGA)



C) XARABEA



ZER DA HEMOFILIA?

A) ODOLEKO

GAIXOTASUN BAT

B) SUPER BOTERE BAT

C) BIRIKETAKO

GAIXOTASUN BAT

ESKOLATIK ETXERA NINDOALA,
BIZIKLETATIK ERORI NAIZ.
HAINBAT KOLPE ETA ZAURI DITUT.
ZER EGIN BEHAR DUT?

A) BIZIKLETAN
MONTATU ETA
ETXERA ITZULI.

B) "BIZI" ARAUA
JARRAITU ETA BARITA
MAGIKOA ERABILTZEA
PENTSATU.

C) SOILIK IZOTZA
IPINI.



PARKEAN NENBILELA,
LAGUN BERRI BATZUK EZAGUTU DITUT.
BERAIEKIN SASKIBALOIAN ARITZEKO
ESKATU DIDATE.
BERAIEKIN JOLASTU NAITEKE?
ZER ESAN BEHARKO NIEKE?

A) BERAIEKIN JOLASTU
NAITEKE, BAINA,
KONTUZ IBILI
BEHAR NAIZELA
ESANGO DIET.

B) HOBE DA BERAIEKIN
LAGUNA EZ IZATEA
ETA BAKARRIK
GERATZEA

C) ARAZORIK
GABE JOLASTU
NAITEKE BERAIEKIN.



Eguneroko maitea,

Gaurkoan ere super heroien abentura bat kontatu nahi dizut. Arane eta Martinekin hondartzara joan naiz txango bat egitera. Uretan gine-la, harroka batekin min hartu dut.

Zauri bat egin dut hankean eta _____ (1) etengabe irteten hasi da.

Orduan, BIZI araua abian jartzea erabaki dut:

1. _____ (2)

2. _____ (3)

3. _____ (4)

4. _____ (5)

Baina, odolak ateratzen jarraitzen zuen. Beraz, _____ (6) erabiltzea erabaki dut.

Denbora bat igaro ostean, odola geratu da. Eguna ondo amaitu da, txokolatzeko bokadiño goxo bat jan dugu hiruok elkarrekin. Iwuuuuuuuu! _____ (7) gaurkoan ere erronka gaitztea lortu du.

